



# KULTURA PROGRAMAZIOA 2020 BERGARA

MUSIKA  
DANTZA  
ANTZERKIA  
HAURRENTZAT EMANALDIAK

Iraila - Abendua  
Septiembre - Diciembre



S E M I N A R I X O A

## **COVID\_19**

Udalak antolatutako ekitaldi eta emanaldi guztiak babes eta higiene neurri zorrotzak jarraituz egingo dira:

Musukoien erabilera derrigorrezkoa izango da, eta ikuski-zunak dirauen bitartean ezingo da kendu.

Pertsona bakoitzak bere musukoa eraman beharko du.

Seminario sarreran, leihatiletan eta komunetan, pertsonen arteko segurtasun-distantzia errespetatu beharko da.

Aretorako sarreran gel hidroalkoholikoa banatuko da eskuak garbitzeko.

Areto barruan segurtasun distantzia bermatzeko, sarreran adierazitako eserlekua erabiltzea derrigorrezkoa izango da.

Seinaleak eta langileen argibideak errespetatu.

Covid19ren bilakaeraren eraginez, baliteke aforoan aldaketa-ak egon behar izatea. Zalantzarik izanez gero, jarri harremanetan Udalarekin.

Todos los actos y actuaciones organizados por el Ayuntamiento se realizarán con estrictas medidas de protección e higiene:

El uso de la mascarilla será obligatorio y no podrá ser retirado mientras dure el espectáculo.

Cada persona deberá llevar su propia máscarilla.

A la entrada del Seminarixoa, taquilla y aseos, se deberá respetar la distancia de seguridad entre las personas.


En la entrada a la sala se distribuirá gel hidroalcohólico para lavarse las manos

Para garantizar la distancia de seguridad en el interior de la sala, será obligatorio utilizar el asiento indicado en la entrada.

Respetar las señales e instrucciones del personal.

En función de la evolución del Covid19, podrán darse cambios en el aforo. En caso de duda, consultar con el Ayuntamiento.

# PLANOA / PLANO



Horiz markatuta dauden eserlekuak erabilgarri daude.

## ESZENATOKIA

### Sarrerak / Entradas

Seminarixoko emanaldietako sarrerak eskuratzeko bi bide daude:

- Seminarixoko txarteldegiaren ostegunero 18:00etatik 20:00etara.
- [ticket.kutxabank.es](http://ticket.kutxabank.es) webgunearen bitarbez.

Hileko lehenengo ostegunean jarriko dira, hurrengo hilabeteko sarrerak salgai.

Las entradas para las actuaciones de Seminarixoa se podrán adquirir de dos maneras:

- en la taquilla de Seminarixoa todos los jueves entre las 18:00 y las 20:00.
- en la web [ticket.kutxabank.es](http://ticket.kutxabank.es)

A partir del primer jueves de cada semana se pondrán a la venta las entradas para el mes siguiente.

Iraila - Abendua  
Septiembre - Diciembre



# KULTURA PROGRAMAZIOA 2020 BERGARA

## Zinea Seminarixoan

-Ostirala (hilean behin).	22:00. Helduak	5 €
-Igandea.	17:00 Publiko guztiak.	5 €
	19:30 Helduak.	5 €
-Astelehena.	20:30 Helduak. Ikuuslearen eguna.	4 €

## Zinekluba Seminarixoan:

-Asteazkena.	20:00 Helduak.	3 €
--------------	----------------	-----

Zinema On taldeak eta Udalak elkarlanean prestatutako programazioa.



# KULTURA PROGRAMAZIOA 2020 BERGARA

## Musika

Bergarako Txistulari Musika Bandaren Emanaldiak			Ikus 3. Orria
Bergarako Musika Bandaren Emanaldiak			Ikus 5. Orria
Irailak 18	20.00	Kamerata Euskdivarius	S. Marina Elizan Doan
Irailak 25	20.00	Kea Ahots taldea	S. Marina Elizan Doan
Irailak 27	19.00	Euskal Barrokensemble	S. Marina Elizan Doan
Urria 3	20.00	Organo Errromantikoaren Zikloa	S. Marina Elizan Doan
Urria 10	20.00	Organo Errromantikoaren Zikloa	S. Marina Elizan Doan
Urria 17	20.00	Organo Errromantikoaren Zikloa	S. Marina Elizan Doan
Azaroak 14	20.30	B. Orkestra Sinfonikoa	Udal Pilotalekuau Doan
Azaroak 20	20.00	Xabi Solano 'B'	Seminarioan 8 €
Azaroak 27	20.30	B. Orfeoi & Orfeoi gaztea	Seminarioan (-) €
Abenduak 11	20.00	Euskal kondairak musikarekin	Seminarioan 8 €

## Familiarendako ikuskizuna/ Espectáculo familiar

Urriak 3	17.00/18.30	'0!'	Seminarioan	4 €
Azaroak 14	18.00	'Urpekakariak'	Seminarioan	4 €
Abenduak 26	18.00	'Cottondarrak'	Seminarioan	4 €

## Antzerkia / Teatro

Uriak 10	19.00	'Fadoak entzuten zituen gizona'	Seminarioan	8 €
Uriak 17	19.00	'Erdaldun berrien kluba'	Seminarioan	8 €
Uriak 24	19.00	'Panpina'	Seminarioan	8 €
Azaroak 21	19.00	'Aqui va a pasar algo'	Seminarioan	8 €
Azaroak 28	19.00	'Birritan bortxatua'	Seminarioan	8 €

## Dantza

Irailak 11	19.30	Dantza Suelto Txapelketa	Seminarioan	Doan
Azaroak 7	19.00	'Gauekoak'	Seminarioan	8 €
Azaroak 15	12.00	Gazteen Dantza Suelto Txapelketa	Seminarioan	Doan

## Txontxongilo Mostra

Uriak 29tik azaroaren 1era		Seminarioan	8 €
----------------------------	--	-------------	-----

# Bergarako Txistulari Bandaren emanaldiak Pleno aretoan

Urriak 04	13.00	Kontzertua
Azaroak 08	13.00	Kontzertua
Azaroak 29	13.00	Kontzertua
Abenduak 13	13.00	Kontzertua
Abenduak 20	13.00	Kontzertua



Jose Miguel Laskurain zuzendari duen Bergarako Txistulari Banda oso sasoi onean dago. Herriko eitaldi garrantzitsuenetan, auzoetan... non-nahi jartzen du Txistulari Bandak bere alea. Eta Udaletxeko pleno aretoan zein kalejiratan eskaintzeko emanaldi bereziak prestatu ditu, anitzak eta sorpresaz beteak. Sei emanaldi iragarri dituzte datozen hilabeteetarako.

Bergarako Txistulari Banda dirigida por Jose Miguel Laskurain está en muy buena forma. Pone lo mejor de sí en todo tipo de acontecimientos, fiestas locales y eventos. La Banda de Txistularis ha diseñado varias actuaciones especiales para el salón de plenos municipal, así como para kalejiras.

**11**

Irala  
Ostirala

Septiembre  
Viernes

19.30

## Dantza txapelketa

Sarrera / Entrada: Doan



## Euskal Herriko Bikote Nagusientzako 35. Dantza Suelto txapelketa

Bergarako Musika Eskolak, Udalaren laguntzarekin antolatuta, aurten 35. urtez Moises Azpiazen oromenez egingo du Helduen Dantza Suelto Txapelketa, aspalditik Bergaran eta inguruko euskal dantzen zale guztientzat klasikoa dena.

Oraingoan ere Bergarako Txistulari Bandaren laguntzaz eta trikitilariekin dantzarien Fandangoa eta Arin Arina dantzatu beharko dituzte.

Bergarako Musika Eskola, con la ayuda del Ayuntamiento, organiza la cita anual y ya por 35 años del Campeonato de Suelto de Adultos, que se organiza anualmente en recuerdo de Moisés Azpiazu.

En esta ocasión también, los dantzaris tendrán que bailar el Fandango y el Arin Arin con la ayuda de la Banda de Txistularis de Bergara y los trikitilares.

# Bergarako Musika Bandaren emanaldiak

Irailak 20	12.30	Kontzertua	Boluko pilotalekuau
Urriak 18	12.30	Kontzertua	Udal pilotalekuau
Azaroak 22	12.30	Kontzertua	Udal pilotalekuau



Bergarako Musika Banda, mende eta erdian egindako lanaren ondorioz, erreferentea da bergarar guztientzat eta jarraitzen du uneoro birstortzen eta birrasmatzen, musika zaleoi sorpresa atseginak eskaintzen. Bergara sortu zenean jada bazegoen ia; beti egon da hor, mende luzea dauka bizkar gainean. Bainan, hala ere, inoiz baino sasoi onean dago eta zuzendari berriarekin, Enrike Txurruka. Belaunaldiz belaunaldi eutsi dio Bergarako tradizioari eta modernitateari lekua egin dio.

La Banda de Música de Bergara, gracias al trabajo encomiable realizado durante más de siglo y medio, es un referente para todo Bergara. Y sigue reinventándose continuamente, ofreciéndonos a todos y todas los aficionados/as a la música grandes sorpresas. Para cuando se fundó Bergara casi estaba ya; siempre ha estado ahí, cuenta con un largo siglo de vida. Aún así, está en su mejor momento y este pasado año ha estrenado director, Enrike Txurruka. Siempre ha sabido aunar tradición y modernidad.

**18****Iraila  
Ostirala****Septiembre  
Viernes****20.00**

## Musika klasikoa

Sarrera / Entrada: Doan

Hizkuntza / Idioma: Euskaraz

Iraupena / Duración: 70'

Santa Marina elizan

KAMERATA EUSKDIVARIUS

ELKARTEA



## Kamerata Euskdivarius 'Beethoven 250. urteurrena'

Kamerata EusKdivarius Euskal Herriko musikari gazteek 2019an sortutako proiektu berritzailea da. Helburu nagusienak musika klasikoa estereotipo tradizionaletatik urruntzea eta klasikoaren gaurkotasuna modu pedagogikoan azpimarratzea dira. Taldea Beethovenen sinfoniatik eskaintzen dabil, 2020ko abenduaren 16ean, Beethoven jaiotzaren 250. Urteurrenean, 2. Sinfonia interpretatuko duen arte.

Kamerata Euskdivarius es un proyecto renovador formado por jóvenes músicos de Euskal Herria, cuyos objetivos principales son alejar la música clásica de los estereotipos tradicionales y actualizarla de una forma pedagógica. Están ofreciendo sinfonías de Beethoven en diferentes localidades, hasta el 16 de diciembre de 2020, 250 aniversario de la muerte de Beethoven, cuando interpretarán la 2º sinfonía.

**25****Iraila  
Ostirala****Septiembre  
Viernes****20.00**

## Musika klasikoa

Sarrera / Entrada: Doan

Hizkuntza / Idioma: Euskaraz

Zuzendaria / Director: Enrique Azurza

Santa Marina elizan  
KEA TALDEA



## KEA AHOTS taldea

Enrique Azurzak gidatutako Kea Ahots Taldea erreferentzialako ganbera-abesbatza bat da Estatuko abesbatzen panoraman. 1997an sortu zen, XX. eta XXI. mendeetan gutxien erabilitako errepetitorio koraleko obra handiak interpretatzeko. Euskal egileekiko sensibilitate berezia du, eta sortu zenetik kontzertu-jarduera bizia garatzen du, obra ugari estreinatuz, horietako asko taldearentzat berarentzat idatziak. Ezraugarri horiek dituen ganbera bakarra da Euskal Autonomia Erkidegoan.

KEA Ahots Taldea es uno de los coros de cámara de referencia dentro del panorama coral estatal. Creado en 1997 como instrumento para la interpretación de las grandes obras del repertorio coral menos frecuentado de los siglos XX y XXI, con una especial sensibilidad hacia los autores vascos, desarrolla desde su formación una intensa actividad de conciertos, estrenando un buen número de obras, muchas de ellas escritas para la propia agrupación. Es el único conjunto de estas características en el País Vasco.

**27****Iraila  
Igandea****Septiembre  
Domingo****19.00**

## Musika klasikoa

Sarrera / Entrada: Doan

Hizkuntza / Idioma: Euskaraz

Iraupena / Duración: 70'

Santa Marina elizan

EUSKAL

BARROKENSEMBLE



## Euskal Barrokensemble

Euskal Barrokensemble antzinako musika lantzen duen Bilboko taldea da, 2006an sortua. Taldearen sortzaile eta zuzendari Enrike Solinis genero horretako taldeekin nazioartean luzaroan aritu ostean, taldea sortu zuen Bilbon.

Euskal Barrokensemble-k emanaldietan garrantzia handia ematen dio improbisazioari eta antzinakotik abiatuta garai desberdinako musikaren berregiteari. Hala, talde honek nazioartean oso kritika onak jaso izan ditu.

Euskal Barrokensemble es una agrupación musical bilbaína de 2006 puntera en el género de la música antigua. Su creador y director Enrike Solinis cuenta con una amplia experiencia internacional en dicho género, antes de formar Euskal Barrokensemble.

Las actuaciones de EBarrokensemble dejan mucho espacio a la improvisación, así como a la reconstrucción de música de diferentes épocas partiendo de la antigua. De hecho, la agrupación cuenta con excepcionales críticas internacionales.

**03**

**Urria Larunbata Octubre Sábado**

**17.00  
18.30**

## Familiarentzako dantza ikuskizuna


Sarrera / Entrada: 4€

3 urtetik gorakoentzat

Hizkuntza / Idioma: Euskaraz

Iraupena / Duración: 30'

ELIRALE KONPAINIA



## 'O!' Dantza garaikidea

Elirale konpainiak 3 urtetik gorako publikoarentzat zuzendutako dantza ikuskizuna eskainiko du, ordu erdiko iraupena izango duena.

O! Oihantxo, Orekatxo, Olio, Ostinato, Oilo, Ozeano, Beñat Ermitaño, UnibertsO, Olimpo, JariO, Ostiko, Olivier, Oleg...

O! hau mirespenaren O da. Haur txikiiek ongi dakite O hau marrazten beraien aho borobilarekin. Goazen heldu gisa haien ondora O horretaz berriz gozatzera. «O!» dantza garaikide bakarkako bat da non dantzariak kantatzen eta musika jotzen duen.

La compañía Elirale ofrecerá un espectáculo de danza dirigido al público a partir de 3 años, de una duración de media hora.

O! Oihantxo, Orekatxo, Olio, Ostinato, Oilo, Ozeano, Beñat Ermitaño, UnibertsO, Olimpo, JariO, Ostiko, Olivier, Oleg...

O! es la O de la admiración. Los niños y niñas pequeñas saben muy bien dibujar una O con la boca. Vayamos los adultos a disfrutar con las O-s.

«O!» es un espectáculo de danza contemporánea donde la bailarina canta e interpreta música.

**3 | 10 | 17**

**Urria  
Larunbata**

**Octubre  
Sábado**

**20.00**

## Musika

Organo kontzertuak

Sarrera / Entrada: Doan

Santa Marina elizan

Hizkuntza / Idioma: Elebitan /bilingüe



## Organo Erromantikoaren Nazioarteko XXI. zikloa

Ziklo honen bidez, organo erromantikoak duen balorea ezagutzera ematea nahi da nazioarteko organista ezberdinak Bergarara ekarriaz. Organistekin batera maila artistiko handiko instrumentista, solista eta abesbatzak ekartzen dira. Aurten Bergarako Musika eskolako abesbatza, Akelarre abesbatza eta Ana Otxoa sopranoa izango ditugu Aitor Olea, Mikel Ansola eta Oscar Candendo organo jotzaileekin batera emanaldiei kolore anitzak ematen.

Este año se celebra el XXI Ciclo Internacional de Órgano romántico. Con este ciclo se pretende dar a conocer el valor del órgano romántico a través de la participación de notables organistas internacionales en Bergara. Junto a los organistas participarán instrumentistas, solistas y coros de gran nivel artístico: coro de la Escuela de Música de Bergara, el coro Akelarre y la soprano Ana Otxoa que coparticiparán con los organistas Aitor Olea, Mikel Ansola y Oscar Candendo como protagonistas.

**10****Urria Larunbata Octubre Sábado****19.00**

## **Antzerkia / Teatro**

Sarrera / Entrada: 8€

Hizkuntza / Idioma: Euskaraz

**XAKE TALDEA**



## **'Fadoak entzuten zituen gizona'**

Inoiz pentsatu duzue zergatik diren ezagunagoak emakumezko fado abeslariak gizonezkoak baino? Ander Huelvako Ayamonte herrian antolatzen den fado lehiaketa amateur batera doa bertan parte hartzeko asmoz. Autostopean ari dela, Mariok jasoko du bere kamioian. Kasualitateak kasualitate, Anderrek eta Mariok lehenagotik ezagutzen dute elkar, baina urteak dira ez dutela elkarren berri izan. Berezia izango da elkarrekin egingo duten bidaia, batez ere, Masku izeneko pertsonai misteriosuak baldintzatuko duelako.

¿Habéis pensado alguna vez por qué son más conocidas las cantantes de fado que los cantantes de fado? Ander se dirige a Ayamonte (Huelva) a participar en un concurso amateur de fados. Mientras hace auto-stop, lo recojerá en su camión Mario. Da la casualidad de que Ander y Mario se conocen de antes, pero hace mucho que no han tenido noticia uno del otro. Emprenderán un viaje juntos que será muy especial, sobre todo por la aparición de Masku, un personaje misterioso que lo condicionará todo.

## **Antzerkia / Teatro**

Sarrera / Entrada: 8€

Hizkuntza / Idioma: EuskaraZ

Antolatzailea: Jardun

AED ELKARTEA



## **'Erdaldun berrien kluba'**

Irantzuren klubean gutxi dira lau katu. Eta ez dute sekula saririk jaso. Ez dituzte telebistan aipatzen. Ez dute elkarritzetarik egiten. Irantzuren kluba ezezaguna da. Klandestinoa.

Badakizu zergatik? Irantzuren kluba Erdalduen Berrien Kluba delako eta erdaldun berrien gehienek ez dakitelako erdaldun berriak direnik. Izen ere, zer arraio da euskaldun berria izatea? Egilea Idoia Etxeberria da, eta bakarrizketaren aktorea Olatz Pagalday.

En el club de Irantzu son más de cuatro gatos. Y nunca han recibido un premio. No aparecen en televisión. No los entrevistan. El club de Irantzu es completamente desconocido. Clandestino. ¿Sabes por qué? El club de Irantzu es el club de Erdaldun Berrien Kluba y la mayoría de nuevos erdaldunes no saben que lo son. De hecho, ¿qué es realmente ser erdaldun berri? Una obra escrita por Idoia Etxeberria e interpretada por la actriz Olatz Pagalday.

**24**

**Urria Larunbata Octubre Sábado**

**19.00**

## **Antzerkia / Teatro**

Sarrera / Entrada: 8€

Hizkuntza / Idioma: EuskaraZ

Iraupena / Duración: 60'

**KAMIKAZ Kolektiboa**



## **'Panpina'**

Antzezlan honetan gai sakonak topatuko ditu ikusleak, umorea eta performance kutsuko aktore lan fisikoaz lagunduta: noiz bilakatzen da norbera panpin eguneroko bizitzan? Zer pasatzen da panpin baten burutik? Noiz behar dugu begiratu gaitzaten, eta zergatik? Emakume oro da panpina? Besteen begiradak egiten gaitu panpin? Edozein pertsonak du maitatua izateko beharra. Baino zertarako eta noraino gaude prest hori lortzearren? Beldurak, ingurukoen iritziarekiko dependentzia... Besteen begiradaren aurrean, panpina izatea menpekotasun keinu bat da ala askatasun adierazpen gorena?

En esta obra el espectador encontrará temas profundos, con humor y performance: ¿cuándo se convierte uno en muñeco en la vida cotidiana? ¿Qué pasa por la cabeza de un muñeco? ¿Cuándo necesitamos que nos miren y por qué? ¿Toda mujer es muñeca? ¿La mirada de los demás nos hace muñecos? Cualquier persona tiene necesidad de ser amada, pero, ¿qué estamos dispuestos a hacer para conseguirlo? Miedos, el qué dirán... ¿Ser muñeco ante la mirada de los demás es un gesto de dependencia o la máxima expresión de libertad?

**29 | 30 | 31 | 1**

**Urria  
Azaroa**

**Octubre  
Noviembre**

## **Txotxongiloak / Marionetas**

**TAUN TAUN Teatroa**



## **Helduen nazioarteko txotxongilo XV. mostra**

Bi urtetik behineko hitzordua da Taun Taun Teatro taldeak, Udalaren laguntzarekin, antolatzen duen Txotxongilo Mostra. Bi urtetik behin txotxongiloen artearen maisu hauek Bergarara diziplina horietako nazioarteko artistak ekartzen dituzte. Emanaldiak kokagune desberdinetan egiten dira, eta beti-beti bertakoien zein bisitarien harrera beroena lortzen dute.

La Mostra organizada por el colectivo Taun Taun Teatro con la ayuda del Ayuntamiento es ya una cita bi-anual ineludible. Cada dos años estos/as expertos/as de este arte, invitan a Bergara a artistas internacionales de dicha disciplina. Las actuaciones se celebran en diversos espacios y en diferentes formatos, y siempre-siempre obtienen el recibimiento más calido.

**07**Azaroa  
LarunbataNoviembre  
Sábado

19.00

## Dantza

Sarrera / Entrada: 8€

Hizkuntza / Idioma: Euskaraz

KUKAI Taldea



## 'Gauekoak' dantza emanaldia

'Gauekoak' Kukai dantza taldearen azken lana da, Jon Maya Sein dantzari eta sortzailearen barne-begirada batetik abiatzen dena. Mayak albora ekarri ditu diziplina desberdinetan aritutako hainbat bide-lagun: Xabi Bandini eta Arkaitz Miner musikariak eta Mireia Gabilondo antzezle eta zuzendaria. Guztien artean forma eman diete dantza, musika, literatura eta beste alor batzuk erabilita gauaren magia eta misterioa ardatz dituen ikuskizun eder honi.

'Gauekoak' es la última obra del grupo Kukai, que parte de una introspección del coreógrafo y director Jon Maya Sein. Maya ha reunido a varios amigos/as de diversas disciplinas: los músicos Arkaitz Miner y Xabi Bandini, y la directora y actriz Mireia Gabilondo. Entre todos han dado forma a un espectáculo precioso, que con ayuda de danza, música y literatura, homenajea a la magia y el misterio de la noche.

**14** Azaroa Larunbata Noviembre Sábado

20.30

## Musika

Sarrera / Entrada: Doan



## Bergarako Orkestra Sinfonikoaren Santa Zeziliako kontzertua

Bergarako Orkestra Sinfonikoa 1986. urtean sortu zen, Bergarako kultura musikalak anitzagoa izaten laguntzeko helburuarekin. Hain zuen ere, Bergarako musikari ez-profesionalez osatutako Euskal Herriko Orkestra bakarrenetakoa da. 60 musikariz osatua, Alfredo Gonzalez Chirlaquek zuzendari lanak utzi ondoren, Enrike Txurrukak hartu zuen taldearen zuzendaritza. Santa Zeziliaren omenezko urteroko kontzertua galdu ezinezko hitzordua da.

Bergarako Orkestra Sinfonikoa nace en 1986 con el objetivo de contribuir a que la cultura musical de Bergara sea más diversa. Es una de las pocas orquestas de Euskal Herria formada por músicos no profesionales. Formada por 60 músicos, tras la jubilación de Alfredo González Chirlaque como director, Enrike Txurruka asumió la dirección del grupo. La del concierto de Santa Cecilia es una cita a no perderse.

**14** Azaroa Noviembre  
Larunbata Sábado

18.00

## Familientzako ikuskizuna / Espectáculo familiar

Sarrera / Entrada: 4€

Hizkuntza / Idioma: Euskara

Iraupena / Duración: 60'

LANKU



## 'Urpekakariak'

Galtzerdi eta Leotardo igerilekuau topo egin duten lagun bi dira. Ur bazterrean erdi gogaituta daudela, bihurrikeria bat otuko zaie: zergatik ez hondoko tapoia aurkitu eta igerilekua hustu? Eskura dauzkaten gauzakin urperatzeko jantzia prestatu eta isurbidearen bila abiatuko dira beraiek zelatzen ari den sorosle petralaren begiradapean. Hauxe da proiektu honen xedea: modu sotil eta umoretsuan, ikuslerik txikienak beren gorputzei begira jarri eta anitzasunaz, sexualitatez, genero-rolez... hausnar dezaten zirikatzea.

Galtzerdi y Leotardo son dos personas que se han encontrado en la piscina. Medio molestos en la orilla, se les va a ocurrir una travesura: ¿por qué no encontrar el tapón del fondo y vaciar la piscina? Prepararán el traje de inmersión con los objetos a su alcance y buscarán el desagüe bajo la supervisión del socorrista que los vigila. Este es el objetivo de este proyecto: incitar de forma sutil y humorística a que los/las espectadores/as más pequeños/as se fijen en sus cuerpos y reflexionen sobre la diversidad, sexualidad, roles de género...

**15****Azaroa  
Igandea****Noviembre  
Domingo****12.00**

## Dantza txapelketa

Sarrera / Entrada: Doan

Hizkuntza / Idioma: Euskaraz



## Bikote Gazteen Euskal Herriko Dantza Solte Txapelketa

Bergara ia betidanik izan da dantzarako plaza eta azken urteotan, baita ere, dantzarien harrobi. Zaletasuna egon badago, eta hori haziz doa, gainera, Horregatik, gero eta txapelketa garrantzitsu gehiago antolatu ohi dira gurean. Hala, azaro erdian gazteen artean dantza promesak direnekin gozatu ahal izango dugu Seminarixoan, Bikote Gazteen Euskal Herriko Dantza Solte Txapelketan.

Bergara es casi desde siempre plaza para la danza, y estos últimos años, también, cantera de dantzaris. Existe gran afición por esta disciplina y ésta, además va en aumento. Por ello, cada vez se organizan más campeonatos y muestras en Bergara. De esta manera, a finales de noviembre podremos disfrutar con las promesas juveniles de la danza en el campeonato juvenil de danza de Euskal Herria.

**20**

Azaroa  
Ostirala

Noviembre  
Viernes

**20.00**

## Musika ikuskizuna / Espectáculo musical

Sarrera / Entrada: 8€

Hizkuntza / Idioma: Euskaraz

Iraupena / Duración: 80'-90'

XABI SOLANO



## Xabi Solano Maizaren 'Bi'

Xabi Solano Maiza eskarmentu handiko trikitilari eta musikaria da, plaza-gizona izateaz gain, Etzakit, Esne Beltza, Fermin Muguruza, The Solanos eta beste hainbat proiektutan ibilitakoa. 'Bi' bakarkako bigarren lana da, trikitixa berreskuratuta, bere kantu kuttunak bertsioneatu eta erritmo desberdinak landuta, konposizio berriak ere dakartzana.

Xabi Solano Maiza es un trikitilari y músico con muchas tablas a sus espaldas: además de ser plaza-gizona, ha dirigido y participado en numerosos proyectos musicales (Etzakit, Esne Beltza, Fermin Muguruza, The Solanos...). Ahora, ataca con su segundo disco -doble- en solitario, donde recupera la trikitixa, vuelve a algunos de sus temas preferidos y, trabajando otros ritmos, nos presenta una serie de composiciones nuevas.

**21**

Azaroa  
Larunbata

Noviembre  
Sábado

19.00

## Helduentzat antzerkia / Teatro para adultos

Sarrera / Entrada: 8€

Hizkuntza / Idioma: Castellano

ZANGUANO TEATRO



## 'Aquí va a pasar algo'

Bi gizabanakok galdu dute oroimena, oroitzapenak, historia, nortasuna, ziurtasun guztiak amildegira erori dira. Berrasmatzera behartuta daude, unean-unean nortasun bat eraikitzen, nortzuk diren jakiteko arrastoak bilatzera, irudimena lantzen eta jolasa bizitzaren ardatz gisa aldarrikatzera. Ikuskizun komiko-poético honek hunkituko zaitu eta identifikatuko zara.

Dos individuos han perdido su memoria, sus recuerdos, su historia, su personalidad, todas las certezas han caído al abismo. Ahora están obligados a reinventarse, a construirse una personalidad a cada momento.

Un espectáculo cómico-poético, que te emocionará y te hará vivir situaciones hilarantes con las que, inevitablemente, te vas a sentir identificado.

**27**Azaroa  
OstiralaNoviembre  
Viernes

20.30

## Musika



## Bergarako Orfeoia eta Orfeoi Gaztearen kontzertua

Bergarako Orfeoia udalerriko kulturaren instituzioetako bat da; 1923an sortua, bere helburua izan da hasieratik musikaren eta kantuaren zaletasuna suspetu eta berau ezagutzen ematea. Urtean zehar ospatzen diren hitzordu esanguratsuenetan parte hartzen dute: Gabonetako kontzertuan, urtero egin ohi diren ikuskizunetan...

Bergarako Orfeoia eta Orfeoi Gaztea zuzenean ikusi eta entzuteko parada ederra.

El Orfeón bergarés es una de las instituciones de la cultura local; creado en 1923, su objetivo ha sido desde su inicio impulsar la afición por la música y el canto, y darlos a conocer. Participan en los eventos musicales más importantes del año; tales como el Concierto de Navidad, los espectáculos anuales...

Una buena ocasión para disfrutar de las actuaciones del Orfeón bergarés y Orfeoi Gaztea.

**28**

**Azaroa  
Larunbata**

**Noviembre  
Sábado**

**19.00**

## **Antzerkia / Teatro**

Sarrera / Entrada: 8€

Hizkuntza / Idioma: Euskaraz

**TAUPAKA ELKARTEA  
ALDATZEN LAGUNTZEN  
ANTZERKI TALDEA**



## **'Birritan bortxatua'**

"Nagore naiz, 44 urte ditut eta ezin dut sinetsi niri horrelakorik gertatu izana.

(...)."

Nagorek, beldurrak gaindituz, salaketa jartzea erabaki du. Baino orduan hasten da Nagoreren bigarren amesgaiztoa. Epaiketan sufritutakoa eta herritarren aldetik jasotako epaiak kontatuko dizkigu.

Fikziozko antzezlan honek errealtitate gordinean du oinarria.

"Soy Nagore, tengo 44 años y no puedo creer que me haya pasado algo así. Enfrentándose a sus miedos, ha decidido denunciarlo. Pero entonces comienza la segunda pesadilla. Nos contará lo sufrido en el juicio, así como los juicios de valor del entorno.

Esta obra de ficción está basada en la cruda realidad.

**11**

**Abendua  
Ostirala**

**Diciembre  
Viernes**

**20.00**

## **Musika ikuskizuna / Espectáculo musical**

Sarrera / Entrada: 8€

Hizkuntza / Idioma: Euskaraz

Toti Martinez de Lezea  
& Bergarako violin-jole  
laukotea



## **'Euskal kondairak musikarekin'**

Euskal kondairen kontaketa musikatua. Toti Martinez de Lezea gaztelaniaz zein euskaraz idazten duen arabar idazle eta itzultzaile ezaguna da. Itzulpengintzako ikasketak egin zituen. Telebistako gidoilaria eta aktorea ere bada, eta Kukubiltxo antzerki taldearen sortzaileetako bat. Larrabetzun bizi da.

Honakoan, Toti Martinez de Lezea, Bergarako violin-jole laukotearekin batera arituko da.

Relato musical de leyendas vascas. Toti Martínez de Lezea es una escritora y una conocidísima traductora alavesa que escribe tanto en castellano como en euskera. Estudió traducción. También es guionista y actriz de televisión y cofundadora del grupo de teatro Kukubiltxo. Vive en Larrabetzu.

En esta ocasión, Toti Martínez de Lezea estará acompañada por el cuarteto de violines de Bergara.

**26**

**Abendua Larunbata Diciembre Sábado**

**18.00**

## **Familiarentzat antzerkia / Teatro para familias**

Sarrera / Entrada: 4€

+5 urte/Años

Hizkuntza / Idioma: Testurik gabe /Sin texto

**ANITA MARAVILLAS**

Iraupena / Duración: 50'

**TEATRO & PORTAL 71**



## **'Kottondarrak'**

Sorterriko arriskuak atzean utzita, Koton familia hirira abiatuko da bizitza eta aukera berrien bila. Hiriko teilaratu, argien eta lantegiko makina eta oihalen artean, amak eta bi alabek abentura berriak eta arrisku ezezagunak biziko dituzte. Baino, oraingoan, ez daude bakarrik eta gogor ekingo diote zoriontsu izateko nahiari.

Dejando atrás los peligros de su pueblo natal, la familia Cotton se dirige a la ciudad en busca de nuevas vidas y oportunidades. Entre los tejados y las luces de la ciudad, entre las telas, los hilos y las máquinas de la fábrica, la madre y sus dos hijas vivirán nuevas aventuras y peligros desconocidos. Pero, esta vez, no están solas y se lanzarán con fuerza al deseo de ser felices.



# SEMINARIO A

## KULTURA PROGRAMAZIOA 2020 BERGARA

MUSIKA  
DANTZA  
ANTZERKIA  
HAURRENTZAT EMANALDIAK

